

Ekitaldi honetan **merkataritza-jardueraren** eta **banku-negozio tipikoaren** bilakaera funtsezkoak ari dira izaten

## **Kutxabankek 250,2 milioi euroko emaitza lortu du lehen seihilekoan**

- **Banku-negozioaren diru-sarrerak % 36,7 hazi dira, interes-sarreraren bultzada eta aseguru-negozioaren ekarpenaren ondorioz, azken honek irabazien kontura 80 milioi emanda**
- **Inbertsio-funtsetan harpidetza garbi gehien izan duen bigarren taldea da, sarrera berri guztien % 15 baino gehiago hartu baitu**
- **Hipoteken jarduera suspertu egin da eta kontsumo-kredituak % 16 hazi dira**
- **2.431 milioi baino gehiago sinatu dira Enpresetako Bankaren eta Korporazio Bankaren formalizazio berrietan**
- **Berankortasun-tasa % 1,38koa da, alor osoko baxuena berriro**
- **CET1 fully loaded ratioa 40 puntu hobetu da, % 17,6ra arte**

**2023ko uztailaren 27an.** Kutxabank Taldeak 2023ko lehen seihilekoa **250,2 milioi** euroko irabazi garbiarekin itxi du, iazko epealdi berean baino **% 53,4** gehiago, eta pandemiaren aurreko seihilekoan lortutakoa baino **% 26,8** etekin handiagoarekin.

Epealdi honetan, merkatuaren makro-aurreikuspenak hobetu egin dira eta inflazioak % 2tik behera kokatu da, nahiz eta oinarritzko inflazioak altua izaten jarraitzen duen. Hori dela eta, EBZk interes-tasak igotzen jarraitu du eta, berankortasunaren okerrerantzko joera nabarmenik ez sumatu arren, egiaztatu ahal izan da finantzaketaren kostuaren igoerak kreditu-bolumenaren igoeran eragina izan duela.

Bestetik, finantza-merkatuek nabarmen hazten jarraitu dute, eta horrek eragin positiboa izan du Erakundeak kudeatzen dituen aktiboen balorazioetan.

Urte erdiko emaitza **merkataritza-jarduera sendoan** eta **banku-negozio tipikoan** oinarritu da, **% 36,7** hazi baita, batez ere interesen marjinak bultzatuta, gaur egun 2012ko mailaren parean baitago.

Urteko ñabardurarik aipagarrienetako bat merkataritza-jardueraren kemena izan da, Kutxabankek eskaintzen dituen **zerbitzu eta produktuen kontratazioaren** bitartez. **Hipoteketan, kontsumo-kredituetan** eta **enpresen finantzazioan** ekoizpen berria bankuaren aurreikuspenen gainetik egon da, testuingurua lehiakortasun handikoa izan arren.

**Balantzetik kanpoko baliabideetan**, Kutxabankek bere merkatu-kuotak handitzen jarraitu du, eta **harpidetza garbi gehien izan duen bigarren finantza erakundea** izan da, merkatuko sarrera garbi guztien % 15 baino gehiago bereganatu baitu.

Kutxabankek bere banku digitaleko eskaintza eta bezeroekiko arreta hobetzen jarraitu du. Apustu estrategiko honek zerbitzu honekin bat egiten duten erabiltzaileen kopuruan eragina izan du. Gaur egun, bezero guztien % **62 erabiltzaile digitalak** dira.

Kutxabanken online banka eta banka mugikorra produktuak eta zerbitzuak kontratatzeko bide kritiko finkatu dira, eta dagoeneko **kontratazio guztien % 45** kanal hauen bitartez egiten da. **Baliabide digitalen** erabilgarritasun handiagoari esker, aurreikuspeneko produktuen % **67** kontratatu da, edo **hipoteken % 52** bide digitaletik kontratatzen hasi da.

## Urte ona balantzetik kanpoko baliabideentzat


Finantza-merkatuen hazkunde handiko testuinguruan, Kutxabankek **administratutako bezero-baliabideek** % 7,1eraino hazten jarraitu dute, eta **78.482 milioi** eurora iritsi dira.

Lehen seihileko osoan, Kutxabank Taldea inbertsio-fondoetan harpidetza garbi gehieneko **bigarren erakundea** izan da, **2.404 milioi** euro bereganatu baititu guztira, hau da, merkatuko sarrera berri guztien % **15 baino gehiago**.

Taldeak **inbertsio-fondoan merkatuan duen kuota** hobetzen jarraitu du, oinarrizko 46 puntu abenduarekin alderatuta; izan ere, erreferentzia bat da bezeroentzako finantza-laguntzan, adibidez horizonte fondoekin, erakargarriak tasa-igoeren inguruneetan, aukera ematen baitie bezeroei tasa-igoerez baliatzeko.

Gaur egun **Kutxabank Taldeak 25.000 milioi** euro inguru ditu **inbertsio-fondoetan eta diru-zorro** delegatuetan kudeatuta, eta % **7,51**eko merkatu-kuotari eusten dio Estatuan.

### Inbertsio-fondoan merkatu-kuotaren bilakaera (%)



## Jarduera komertzialaren bultzada

Kreditu-inbertsioa **47.000 milioi**tik gora mantentzen da, eta Kutxabanken aurreikuspenak hobetu ditu. Bilakaera hori **handizkako** bankaren (enpresak eta erakundeak) portaera onari zor zaio, baita hipoteken kasuan izandako portaera hobeari ere, horien bilakaera merkatuko batez bestekoa baino hobea baita.

Enpresen beharrak finantzatzeko jarduerak azken hiruhilekoetan izan duen hobekuntza berretsi egin da, **2.431 milioi** euro harpidetu baitira formalizazio berrietan, banka korporatiboaren hazkunde nabarmenarekin (**% 11,6**).

Hipoteka-maileguen kasuan, Kutxabankek aurrera egin du berriro tasen igoerak eta, ondorioz, etxebizitzaren erosketarako hipoteken formalizazioan izandako beherakadak gogor baldintzatutako merkatuan.

Kutxabankek **1.760 milioi** euro bideratu ditu hipoteka-mailegu berrietara, erakundearen aurreikuspenen gaineratik.

Bestalde, **kontsumorako maileguak** % 16 hazi dira, eta aparteko **% 60 Saltegi Kredituan**; merkataritza-sektorearen fakturazioaren indarra erakusten du horrek.

**Kutxabank Segurosek 65.000 poliza berri** banatu ditu 2023ko lehen sei hilekoan.

Bereziki nabarmena izan da **auto aseguruaren** bilakaera (salmentak **% 35** igo dira), baita **errenta-aseguruarena** ere, tasa-igoeraren ondorioz. Kontsumo-maileguekin **konbinatutako ekoizpena % 4,5** hazi da, eta **Enpresetarako Arrisku Anitzekoa % 7,4**.

Kutxabank Segurosen poliza-stocka **920.973**koa da, eta jarduera honek aldi honetan guztira **79,6 milioi** euroko diru-sarrerak ekarri ditu Taldearen emaitza-kontura.

## Emaitzen kontua

Emaitzen kontuko **marjina nagusi guztiek** bilakaera ona izan dute.

Banku negozioaren **oinarrizko sarrerak** nabarmendu dira, **% 36,7**ko hazkundera izan baitute, guztira **814,7 milioi** euro, batez ere Interesen Marjinak bultzatuta, 510 milioi euro ingurukoa izan baita, iaz baino **% 82,7** handiagoa.

Partaidetuen zorroaren ekarpen errepikakorra, batez ere dibidenduen eta bazkidetuen ekarpenaren bidez, **78 milioi** eurokoa izan da.

Ondorioz, **Marjina Gordina 815 milioi** eurotik gorakoa izan da.

Kutxabankek bere eraginkortasuna hobetzeko eta **ustiapen gastuei** eusteko **ahalegin garrantzitsua** egiten jarraitu du, eta bien bitartean hornidurak indartzen jarraitu du.

**Ustiapen gastuak % 5** handitu dira, pertsonalaren gastuen igoeraren eta kostu orokorren goranzko presioaren ondorioz. **Ustiapen Marjina 497,7 milioi** eurokoa izan da, **% 55,2** handiagoa.

Taldeak egin ohi duen zuhurtziazko kudeaketaren ildotik, kreditu-zorroaren eta gainerako aktiboen **saneamendu** maila handiari eutsi zaio, arlo honetara **143,8 milioi** euro bideratu ostean.

Epealdi honetan bankuei ezarri zaien zerga bereziari aurre egiteko 47 milioi euro bideratu dira. Horren ondoren, Taldearen irabazi garbia **250,2 milioi** eurokoa izan da, iaz garai berean baino **% 53** handiagoa.

## Kutxabank Taldearen emaitzak, 2023ko ekaina

Milioi eurotan	2022ko ekaina	%Δ
Interesen Marjina	510,8	82,7
Zerbitzuen eta aseguruaren sarrerak	303,8	-4,0
<b>Banka negozioaren core sarrerak</b>	<b>814,7</b>	<b>36,7</b>
Dibidenduak, baliokidetasunak eta ROF	78,3	34,0
Beste ustiapen emaitzak	-78,0	145,0
<b>Marjina Gordina</b>	<b>815,0</b>	<b>30,9</b>
Ustiapen gastuak	-317,3	5,1
<b>Ustiapen Marjina</b>	<b>497,7</b>	<b>55,2</b>
Saneamenduak eta narriadurak	-143,8	27,1
Beste irabazi eta galerak	8,8	-40,0
<b>Zergen aurreko emaitza</b>	<b>362,7</b>	<b>63,2</b>
Zergak eta bestelakoak	-112,5	90,6
<b>Taldearen emaitza</b>	<b>250,2</b>	<b>53,4</b>

## Adierazle nagusiak hobera

Kutxabankek finantza-alor osoko **berankortasun-ratiorik baxuenarekin** jarraitzen du, batez bestekoarekin alderatuta 200 oinarrizko puntutik gorako aldearekin. Indizea **% 1,38koa** zen ekainaren amaieran.

Errentagarritasun-adierazleetan aurrerapen garrantzitsuak ekarri dituzte sarrera errepikakorrak sortzen gaitasun sendoak eta gastuen bilakaerak. Horrela, sei hilekoko ROTE urteratua % 9,2koa zen, ROA %0,6koa eta eraginkortasun ratioa %37koa litzateke, ROF eta bankuen zergaren eragina kenduta.

Kutxabankek bere kaudimen sendoarekin segitzen du, % **17,6ko CET1 fully loaded** ratioarekin, epealdi honetan ratio hori oinarritzko 40 puntu hobetu ostean.

### **Kutxabanki buruz**

Kutxabank finantza-erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen bulego-sarea, eta presentzia nabarmena Andaluzian, Madrilan eta Katalunian. 5.000 profesionalak baino gehiagok osatutako taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako banku kaudimenduena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.